

TXERRIAK ETA LOREAK

JON
ARRETXE



erein

TXERRIAK ETA LOREAK

40

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

A. Beltza | Errein argitaletxea

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-080-3

L.G.: D 1070-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

TXERRIAK ETA LOREAK

JON
ARRETXE

erein

—Ziur zaude hemen dela?

—Hemen izan behar. Arbizuko industria-poligonoan gaude, hor... —Bista fokatzen saiatu da—: «Ez-dakit-zer Arbizu» ipintzen du, eta marrazkia txistor batena da, ezta?

—Ez dakit, txorizoa ere izan liteke, edo lukainka.

Gizon biak horma-irudira begira geratu dira auto go-riaren barrutik. Udako gau sargoria da eta, poligono ba-kartiko pabilioi itzaltsuen artetik hainbat buelta eman on-doren, «Bikain hestebeteak, Arbizu» iragarkia daukanaren aurrera heldu berri dira.

—Zer desberdintasun dago txistorraren, txorizoaren eta lukainkaren artean?

—Loditasuna, beharbada?

—Bueno, berdin dio. Hauxe izan behar da lekua, goazen!

Esan diete ez dagoela kamerarik inguruan, baina, ba-daezpada, biek jantzi dute buru-berokia, eta autotik jaitsita

pabilioiaren sarrera nagusirantz abiatu dira. Batak palanka eta gakorde-sorta daramatza eskuetan, besteak zaku bi lepoan. Euren informazioaren arabera, alarmak ez du joko, eta sarrerako atea ez da sendoegia. Gauzak hala, erraza suertatu zaie bortxatzea eta hallean sartu dira, bulegoen gunean. Hainbat koadrotxo daude hormetan esekita, ez dakit zer sari, ez dakit zer kalitate-agiri... Ate bat dago pasabide labur baten amaieran eta, hau irekita, ekoizpen-eremuan barruratu dira. Tenperatura hogei-taka graduz jaitsi da bat-batean, espazioa askoz handiagoa da, zabaleraz zein altueraz, eta metalezko ate asko daude. Bat ireki dute, hozkailu erraldoia dirudi, haragi puxketa izoztuak daude, tonaka. Bigarrenean, txorizo arruntak topatu dituzte, hutsean bilduta eta makina bat kutxatan sailkaturik...

—Hobe da banatzea. Nik hemendik jarraituko dut, zuk beste alde horretatik probatu.

—Ados. Zelan jakingo dugu zeintzuk diren txistorrak?

—Etiketari begiratuta. «Txistorra» jarri behar du.

—Aurtengo abendua da iraungitze-data, ezta?

—Horixe.

Nork bere aldetik jarraitu du, bada, atea irekitzen, eta horrela egon dira tarte batez, harik eta batek «hemen!» oihukatu duen arte.

Hozkailu-biltegi horretan ehundaka txistor ageri dira, beharbada milaka, metalezko barretatik esekita,

lehortzen edo, oraindik plastikotan bildu gabe. Hotzak ez du eragozten haragi gordinaren usaina.

Abisua eman duenak seinalatzen duen multzoan, hestekien etiketek zera diote: «*Tavuk II txistorra, best before 12/2025*». Ez dute zalantzarik izan, zakuak lurtean ipini eta hortxe sartzen hasi dira pieza guztiak. Ia goraino bete dituzte bi zakuak. Zeregina amaitutakoan zama arrastaka eraman dute halleraino eta, kaleko atea irekita, begiratua eman dute. Inor ere ez. Autoraino jarraitu, lapurretaren emaitza maletategian sartu eta listo. Abiatu egin dira poligonoaren irteerantz.

—Ezin errazagoa. —Buru-berokia kendu du kopilotuak, besteak imitatu egin du—. Benetan ordaindu behar digute hiru mila euro lantxo honen truke?

—Hori esan zigun Antxon delako horrek.

—Ez zaizu arraroa iruditzen?

—Niri ez zait ez arraroa ez normala iruditzen. Txintxo ordaintzen badidate, kito, ez dut besterik jakin nahi. Eta zuk berdin jokatu beharko zenuke.

—Ezin dut. Ez da logikoa horrenbeste diru ordaintzea txorizotxo batzuk ostearen truke, zerbait izan behar dute ezkutuan, zerbait oso baliotsua. Zergatik ez dugu bat ebakitzen, bat baino ez, ea zer aurkitzen dugun?

Poligonoaren barruko azken biribilgunera ailegatu dira, eta hau inguratzerakoan, ustekabean, polizia-auto batekin egin dute topo. «Altsasuko udaltzaingoa» dauka idatzita kapotean, herriko armariaren ondoan. Agente

bat dago errepidearen erdian bidea ixten, bisera buruan, ezker eskua jasota gelditzeko keinua eginez, beste eskua atzean.

—Ostia, eta orain zer?

—Lasai, utzi niri hitz egiten. —Gidariak abiadura mantsotu du.

—Ze txikia den, ezta? Hara, emakumea da. Eta ez da, ba...? Zer arraio...?

Autoa gelditu eta agentea hurreratu egin da gidariaren leihatila irekirantz. Honek nahasturik so egin dio. Downen sindromeduna dirudi andreak, arropak handiegi geratzen zaizkio eta tutik esan gabe begiratu die bi gizonei.

—Gabon. Arazoren bat? —itaundu dio gidariak.

Ustezko polizia usaina sakon hartu eta bere hazpegi mongoloideak areagotu dituen irriñoa egin du. Gero, gero ostean ezkutaturik zeukan pistolaz bi gizonei apuntatu die. Gidariaren erreakzioa arma kentzen saiatzea izan da, baina tirabiraren ondorioz lortu duen gauza bakarra tiro bat buruan izan da. Kopilotuak bere aldeko atea ireki eta ihes egiten ahalegindu da, patruila-autoaren babesa bilatuz. Emakumeak hainbat aldiz egin du tiro, iheslaria lurrera zerraldo jausi den arte. Ustezko polizia hasperen egin du eta, buruaz ezezko keinuak eginez, patruila-autora hurbildu da, eta, gutxienez, bala bik maletategia zulatu dutela ikusi du. Ireki eta barruan zegoen gizonak tiro horietariko bat jaso duela ikusi du. Burua odoletan

dauka eta hilotz da bera ere. Galtzontzillo hutsetan dago, hankak eta eskuak loturik, ahoa esparatrapu batez itxita.

Emakumea pentsakor geratu da segundo batzuetan. Gero, lapurren autora joan, maletategia ireki, eta musua berriro alaitu zaio zakuetakoko jeneroa ikustean. Itxi eta patruila-autora itzuli da. Gogor tiratu behar izan du egiazko poliziaren gorpu astuna ateratzeko, eta lurrean jesarrita kokatu du, bizkarra autoaren kontra. Txistor-lapur biak ere horraino arrastaka eraman eta poliziaren alde banatan ipini ditu, jarrera berean. Apur bat kostatu zaio hiru hilotzekin halako irudi orekatua osatzea.

Haiei begira geratu da emakumea, udaltzain-arropak erantzten dituen bitartean. Azpitik kamiseta eta praka laburrak dauzka jantzita, haren beso eta izterrak sendoak dira, gihartsuak. Auto gorrian geratu diren odol arrastoak kentzeko erabili du uniforme, eta gero lurrera bota du, hiru gorpuen ondora. Apur bat hobeto pentsatu, ordea, eta arropa horiekin udaltzainaren galtzontzillo zuri tradizionalak estali ditu; bi lapurrei buruberokiak ipini dizkie; eta bisera erantzita, haren benetako jabeari jantzi dio. Amaitzeko, pistolari bere atzamarren aztarnak ezabatu dizkio eta poliziaren esku artean utzi du.

Urrats batzuk egin ditu atzerantz eta berriz aztertu du eszena. Onespen keinua egin du. Gero auto gorrian sartu da, eta, industria-poligonotik irtenda, autobiarene sarrera aldera jo du.

Hamaiketakoaren ordua da. Bi udaltzain, gizon beltzaran bat eta aurpegi txuri biribileko emakume bat, biak zein baino zein argalagoak, Akeita kafetegiaren aurreko terrazan jesarrita daude. Gizonezkoa nahiko zaharragoa da bere kolega baino. Kikarak hustuta dituzte dagoeneko, eta txokolatezko bonba baten erdia ageri da platertertxo baten.

—Mateo putakume hutsa zen —bota du emakumeak.

—Ez dago ongi hildakoez horrela hitz egitea, Laura.

—Soberan dakizu nolakoak aguantatu behar izan dizkiodan adurti horri urteetan, German. Eta zurekin ere tranpati hutsa izan da. Zerorri zegokizun Altsasuko udal-tzaingoko sarjentua izatea, eta ez trepa nazkagarri horri. Patua izan da norbaitek tiro bat ematea, merezita zeukan.

—Denaz ere, saiatu beharko genuke gertatutakoa argitzen.

—Ez dakit ongi irudituko zaien foralei guk muturra sartzea. —Mespretxu keinua azaldu da Lauraren aurpegi-
gian.

—Altsasuko komisariara ekarri dituzten gaztetxo horiek ez dira ezertaz enteratzen. Hobe lukete guri laguntza eskatzea.

—Baina hori ez da gertatuko, harroegiak baitira. —Bonba zatia seinalatu du—. Ez duzu bukatu behar?

—Ez dakit non sartzen duzun jaten duzun guztia. —Bolloa hartzeko keinua egin dio.

—Gizon indartsu bat da hiltzailea, ziur nago —esan du Laurak, bonbari lehenengo haginkada emateaz bat—. Bestela, nekez lortuko zuen Mateo astakiloa menperatu, galtzontzillotan utzi eta goitik behera lotzea.

Germanek adostasuna adierazi lezakeen eztarri-hots bat baino ez du atera.

—Eta lepoa jokatuko nuke —erantsi du emakumeak, bolloa, jan barik, irentsi egiten duela—, krimenaren eszena ikusita, zerbait sexuala dagoela hilketa horien atzean. Nik esanen nuke foralek gizon indartsu bat bilatu behar dutela, eta, aurki, gay dena. Norbaitek azaldu beharko lieke; haiek bakarrik ez dira ohartuko.

Germanek ez du tutik esan, aurreko espaloitik pasatzen ari den gizon batengan ezarria du arreta. Txikia da, oso mehea, apur bat aurrerantz okertua bezala du lepo luzea eta deigarria suertatzen da haren ibilera baldarra.

—Ez zaizu ezaguna egiten tipo hori?

—Nondik?

—Lehengo eguneko bitxi-dendako lapurretatik. Bi txanodunetako bat horren antzera ibiltzen zen.

Laurak hobeto aztertu du gizona.

—Bai zera, lapur haiek hemendik oso urrun izanen dira dagoeneko. Hobe dugu haietaz ahaztea.

—Auto hobea izan bagenu, ez ziguten hain erraz alde eginen, ez gintuzten barregarri utziko, behintzat.

—Gaizkile profesionalak ziren. Ez zigortu zeure burua.

Emakumeak bonbaren azken zatia eramán du ahora.

—Lehen Sakanan ez zen ezer gertatzen —protestatu du Germanek—. Eta orain, haratx: hainbat lapurreta armatu bitxi-dendetan, atzoko hiru hilketak tiroka poligonoan...

—Aldatzen ari dira gauzak, hori nabarmena da. —Laurak sorbaldak jaso ditu—. Dena dela, gauza handi horietarako badaude foralak eta guardia zibilak. Gu herriko udaltzainak gara, besterik ez. —Paperezko serbiletaz ez-painetako eta atzamarretako txokolatè hondarrak garbitu ditu—. Fanen gara?

—Batuetan —biak zutitu dira—, aurrejubilazioa eskatzeko gogoá ematen dit.

—Presarik ez, German. Altsasuk ezin du galdu azken hogeita hamar urteetako bere udaltzain mitikoa.

* * *

Hormako argazkiak emakume irribarretsu bat erakusten du, judoka jantzita, domina lepotik esekita. Haren alboan beste bi emakume daude, hauek ere Downen sindrome-dunen aurpegierakoak, beste domina bana jantzirik. Berrez, egunkari pusketa kolorgetzen hasia da eta azpian zera jartzen du: «Zuriñe Ruiz de Gordoa gasteiztarra, zilarrezko domina Europako judo-txapelketa paralinpikoan».

Urteak pasatu dira Zuriñek argazki hori koadro baten sartu eta egongelako horman eseki zuenetik, baina ez da nekatzen hari begiratzeaz. Orain ere, berandura arte lo egin ondoren, piztak begietan, segundo batzuk eman ditu hari so. Gero hormara hurreratu eta koadroa jiratu du pixkatxo bat, milimetro batzuk okertuta zegoela iruditu baitzaio. Hormako beste koadroak ere –Judoka multzo baten argazkia, judo-federazioko diploma bat eta Baskonia saskibaloiklubaren azken denboraldiko posterarra– mugitu ditu apurtxo bat, dena guztiz orekatuta dagoela iruditu zaion arte. Orduan berriro zentratu da dominadunen argazkian. Ez dauka jada txapeldun garai hartako sasoia, baina oraindik osasuntsu sentitzen da, eta indartsu, gimnasioko jardunari esker, gehienbat. Bart behar-beharrezkoa izan zitzaion kemen hori guztia, lehenik Altsasuko udaltzaina menperatzeko, gero Arbizuko poligonoko gorabeheretan, eta azkenik, Gasteizen, txistor zakukada astunak bere autora pasatzeko. Mendizorrotzako aparkaleku erraldoiko bakardadeaz baliatu zen aldaketa egiteko, eta hantxe utzi zuen Nafarroatik

ekarritako auto gorria. Ziurrenik, egunak beharko dituzte lokalizatzeke, eta konbentzituta dago ez dutela bera zi-priztindu lezakeen inolako zantzurik aurkituko.

Sukaldera joan da eta mahai gaineko txistor solteari begiratu dio. Bat baino ez du ekarri zakuetako partidatik eta zalantzak eraso dio berriro: konturatuko dira pieza bakar baten faltaz? Gehiegi arriskatzen ari da? Jende guztiak pentsatzen du mamala dela, bere Down puntuagatik, eta sarritan saiatzen dira ziria sartzen. Baina lelorik handiena ere konturatuko litzateke ez dela batere normala norbaitek dirutza eskaintzea hestebete kilo batzuen truke.

Berriro so egin dio mahaiko txistorrari. Zerbait izan behar du barruan ezkutatuta eta berak jakin nahi du zer den. Ze arraio, aizto bat hartu eta hestebetea ebakitzen hasi da, hamar bat zentimetroko zatitan hasieran... Ezer ez. Zeharka ireki ditu pusketak, banan-banan... Ezer ez, mamia baino ez. Nahasturik sentitu da. Autora jaitsi eta beste bat ekarri beharko luke probatzeko? Haragi pipe-rraustuaren usaina zabaldu da sukaldean, eta Zuriñek go-searen eraso sentitu du. Tira, oraingoz hausnarketa baztertu eta bere sabelari merezi duen oparitxoa emango dio. Hozkailua hutsik edukita, ez dago zalantzarik: zartagina sutan jarri eta txistorra frijitzen ipini du.

Ez du gehiegitan jan hestebete hori, aspaldi probatu zuen azken aldiz eta bestelako gomuta zeukan. Zaporea ona iruditu zaio, baina testura berezia sumatu dio. Ondo aztertu du, gertu-gertutik... Ez da ezer arrarorik ikusten.

Tira, gosea nagusitu da eta ia txistor guztia irentsi du, ogi zaharraren eta ardo beltzaren laguntzaz. Gero traste guztiak ondo garbitu, azken ogi-mami apurrak ere bildu, eta, dena txukunduta dagoela iruditu zaionean, erlojuari begiratu dio. Antxon delako horrekin adostu duen hitzordura puntual ailegatzeko zenbat denbora behar duen kalkulatu du.

* * *

Fermin Bakaikoa da «Bikain hestebeteak» lantegiaren jabea, gizon ezaguna Sakana guztian. Hortxe dago orain gizakote ilegorria, bere ehun eta berrogei kiloak aulkian kabituz ezinda, enpresako gerentzia hartu zuenetik idazkari lana egiten dion Marianekin berbaz lantegiko bulegoan.

—Ez diogu hots eginen poliziari? —galdetu dio andreak.

—Oraingoz ez, utzi nire esku. —Bizar oparoan kiribiltzen ari da atzamar puntak, hausnarrean—. Ataria hondatzeaz gainera, beste kalterik eragin dute?

—Nik ez dut beste ezer topatu.

—Zer ostu digute?

—Bulegoan ez dira sartu, itxuraz; txokoan ere ez. Eta biltegietan, ez nago ziur. Nik, orokorrean, atzo itxi nuen bezalatsu ikusi ditut gauzak.

—Alarmak ez zuen jo?

—Ez. Ez dabil ongi eta aldatu beharko genuke.

Biak pentsakor geratu dira apur baten.

—Biribilguneko hilketek —erantsi du Marianek— zerikusia izanen dute gurearekin?

—Batek daki.

—Ez da kasualitate handiegia bi gauzak gau berean gertatzea?

Idazkari beteranoak tinko so egin dio bere jabeari. Ikasia du, urteen poderioz, haren aurpegiera interpreta-tzen, eta orain aurpegi horrek kezka handia adierazten du. Urte luzeetan bete du idazkari lana zintzo, fidel; *Bikainen* gertatzen den ia guztiaren berri dauka, eta lantzean behin ez ikusiarena egitea suertatu zaio salerosketa susmagarri batzuekin, transferentzia eta kontu zalantzarri bat edo besterekin... Baina bere soldata naroaren barruan sartuta daude horrelako gauzak.

Ferminnek erantzuteko asmorik ez daukala ikusita, galdera deserosoak alde batera utzi eta gaiez erabat aldatzea erabaki du:

—Oso probetxugarria izan zen Istanbulgo bidaiaria. —Nagusiaren arreta erakartzea lortu du—. Ile berria ez da lehengoa bezain gorria, baina askoz gazteagoa ematen duzu orain. —Fermin Bakaikoaren aurpegiera apurtxo bat erlaxatu da—. Dena dela, ongi etorriko litzaizuke bizar hori pixka bat konpontzea.

Txistorgileak bufada bat bota du, bere gorputzarra aulki kexatitik nola edo hala altxatu eta «aio» entzungaitza murmurikatu ondoren, bulegotik irten da.

Halleko kutxa batetik plastikoko fin-fineko soingainekoa, maskara bat eta burua eta oinak estaltzeko oihaltxoak hartu, jantzi eta ekoizpen-eremuan sartu da. Zuzen eta artez, txistor-lapurreta gertatu zen biltegitira joan da, eta tarte bat eman du hainbat partidaren etiketak aztertzen. Gero makinak dauden alderdira jo du, eta han langile bati galdera batzuk egin dizkio, enpresa sortu zenetik hor jardun duen Joxemari zaharrari, baina honen erantzunak laburrak izan dira, sorbalda-jasotze keinuez lagunduak. Azkenik, Fermin hotzaren eremutik irten, janzkera berezia zakarretara bota eta beste inorekin hitz egin gabe alde egin du lantegitik, burumakur.

* * *

Zuriñe Ruiz de Gordo ailegatu da, azkenik, Basaurira. Ordubete baino gutxiago Gasteiztik, lasai gidatuz. Herriaren kanpoaldean dagoen hilerria aurkitzea apur bat kostatu zaio, auto zaharrea GPSa ez izatearen erruz. Eta behin han egonda, jasota zeuzkan aginduei jarraituz, kanposantua inguratzen duen horma garaiaren aldamenetik gidatzen segitu du, pista estu eta aldapatsu batetik gora, atzealdeko puntaraino iritsi den arte. Hortxe aparkatu eta ingurumaria aztertu du: toki bakartia da, diskretua, balizko begiluzeen-gandik salbukoa; alde batean hilerriko horma luzea dago, gristasun etsigarria apurtzen dion elementu bakar batekin: norbaitek margotu duen hori kolore biziko lore handi

bat; beste aldean sasiarte garaiak daude, eta oso landa zabalak, parra-ilaratan antolatutako kiwi landarez beteak. Landaren goiko puntan pare bat baserri ageri dira, eta txalet berriago bat. «Atxikorre auzoa» dio kartel batek harantz jarraitzen duen pistaren hasieran. Honen bazterrean zulo handi bat dago lurrian. Bele ugari ageri dira, kanposantuko hormaren gainean, honen altuera gainditzen duten altzifreen inguruan, kiwi-adarren artean...

Zuriñek 4x4 bat ikusi du baserrien aldetik jaisten. Zakurtzar zaunkari batek jarraitzen dio, mastina da. Bere aitita artzainak bazeukan halako bat herrian eta primeran daki mastinak txakur nobleak izaten direla, lasaiak normalean, baina oso indartsu eta ausartak ere bai. Otzanak izan ohi dira jabearekin, eta oso arriskutsuak etsaiekin, pertsona zein otsoekin. Autoa andrearen alboan gelditu eta gizon gazte bat atera da.

—Tomaki! —bota dio txakurrari, eta hau zalantzan legez geratu da—. Geldi hor! —Orain bai, animaliak obeditu eta zuloaren alboan geratu da zirkinik egin gabe, bikoteari so. Egin berria dirudi zuloak—. Potato zara?

Bostekoa luzatu dio gizonak, harridura keinuaz.

—Zuretzat bai. Eta zu Antxon zara?

—Zuretzat Antxon den horren senidea, haren partez nator. —Gizona tinko begira geratu zaio, isilik. Nahasmen musuak bere horretan jarraitzen du.

—Arazoren bat? —Zuriñek primeran ezagutzen du keinu hori, ohikoa izaten da aldeztatik ezagutu gabe

kontratzen dutenen aurpegietan. «Potatoren zerbitzuak»era jotzen dutenean denek imajinatzen dute, antza, bestelako pertsona bat.

—Ez, bat ere ez. —Irribarrea behartu du morroiak—. Ekarri duzu jeneroa?

—Bai, maletategian dago. Zuk ekarri duzu dirua?

—Jakina, baina merkantzia ikusi gura dut lehenengo.

Zuriñe-Potatok bere automobilaren atzeko atea ireki du, Antxonen mandatariari zeharka begira, eta honek gauza bera egin du bere 4x4ko atearekin. Zuriñek tira egin dio zakuetakoko bati lurlean utzi arte. Gizonak, oster, maletategitik pala bat atera, eta, zuzen eta artez, honen puntaz emakumearen burua jotzen saiatu da. «Ezin errazagoa» pentsatuko zuen, ziurrenik; horregatik, zur eta lur geratu da andre txiki makal usteko horrek kolpeari iskin egin dionean. Lanabesak zakua jo du, hau irauli egin da eta hainbat txistor sakabanatu dira lurlean. Erasotzaileak oreka galdu du hutsaren eraginez eta judoka ohiak ondo aprobe txatu du momentua morroiari lepotik heldu, hain entrenatuta dauzkan giltza horietako bat egin, eta, besoak eta hankak erabiliz, lurlean immobilizatzeko. Menpe dauka gizona, baina hau ahots itoaz «Lagun! Lagun!...» esaten hasi da, eta Zuriñek ikaraz ikusi du mastina haiengana hurbiltzen. Animaliak ez dio, ordea, berari eraso; besterik gabe, txistorrak usaindu ditu eta, segituan, jaten hasi da, patxadatsu.

Zuriñek denbora luzean izan lezake tipoa mugitu ezinik, baina horrekin ez luke ezer lortuko. Lotzea pasatu zaio burutik, Altsasuko udaltzainarekin egin zuen bezala, baina ez, ez da horrekin konformatzen, ezta pentsatu ere, morroiak garesti ordaindu behar du bere azpikeria. Besterik ezean, txistor bati heldu dio, Antxonon mandataritari lepo bueltan ipini eta itotzen saiatu da. Baina hestebetea bigunegia da eta apurtu egin da. Orduan, atzamarrez biktimaren sudur-zuloak estali eta, beste eskuaz, haragi-mamia ahoan sartzen hasi zaio, arnasbide guztiak ixteko ahaleginez. Gizonak eragotzita dauka besoen mugimendua, baina hankei eta buruari etengabe eragiten die, eta zeregina ia ezinezkoa dela jabetu da Zuriñe. Palari erreparatu dio orduan, ez dauka urrunegi. Besoa luzatu du, ia-ia heldu diezaioke... Armari oratzeko ahaleginen ondorioz, gizona libre geratu da une batez. Lau hankatan ipini da, itolarriz, haragi zatiak botatzen dituela ahotik... Ezin dio errekuperatzeko astirik eman eta Zuriñek, ezbaian ibili gabe, pala jaso eta kolpe latza eman dio buruan, lurrera erorarazi duena berriro. «Zureak egin du» murmurikatuz, lanbesa berriz altxatu eta metalezko puntaz gizonaren ez-tarria jo du bere indar guztiez. Kito, morroi horrek ez dio arazo gehiagorik emango.

Arnasari buelta ematen dion bitartean, ingurua aztertut du begiradaz: lekukorik ez, kanposantuko arimez eta zakur gosetiaz aparte. Honek otorduan erabat zentratuta

jarraitzen du, ezin sinetsi, aititaren mastinak haginka akabatuko zuen bere jabearen erasotzailea.

Zuriñe 4x4ra joan da eta arakatu egin du presaka. Ez dago diruaren arrastorik inondik. Kaka! Putakumeak! Orduan ulertu du norentzat zegoen prestatuta pistaren bazterreko zuloa. Hildakoaren odola arin zabaltzen ari da lurrean. Patxadatsu jaten jarraitzen duen zakurtzarrari gehiegi hurreratu gabe, txistor batzuk berreskuratu ditu, baina mastinak marmar oldarkor batez adierazi dio ez zaiola ideia gustatu. Andreak, orduan, animalari tentuz so, mugimendu zakarrik egin barik, zaku erdi betea maletategian sartzea lortu du. Lurrean apurtuta ageri diren txistorren mamiari erreparatu dio, ez da ezer berezirik sumatzen. Beste pieza batzuk biltzen saiatu beharko luke? Zakurrak, haren zalantza sumatuz bezala, une batez jateari utzi eta hagin gorrituak erakutsi dizkio. Ospa egiteko momentua ailegatu da.

Zuriñe Ruiz de Gordo bere auto zaharrean sartu da eta eszena aztertu du leihatilaren barrualdetik. Amorrua eman dio inguruan halako anabasa uzteak, ez da bere estiloa, baina primeran daki ez dela batere ideia ona mastin goseti batekin eztabaidatzea. Behingoagatik, salbuespena egingo du. Motorra martxan ipini eta Gasteizera abiatu da.